

# Helder Camara, zapalduen Profeta poeta

• PAULO AGIRREBALTZATI GI •

[IDAZLEA]

**L**imosna egiten baduzu, santutzat hartzen zaituzte, baina pobrerik zerzatik daogon galdezen baduzu, orduan iraultzaile, asaldatzaile, bihurtzen zara nonbait». (Helder Camara).

Badira ia hamalau urte (1985eko urrian) Helder Camara, Recifeko apezpikua Brasílgoko eki-iparralde pobrean, Euskal Herrian bisitan izan genuela: hitzaldi eta elkarrizketez gain, *Bi munduen sinfonia* izeneko bere poema musikatuak auzkertera eta kantatzera etorri zen. Bilboan, Iruñean eta Donostian eman zuten Helderren poemaren gain Pierre Kaelin-ek konposaturiko sinfonia. Donostiako Santa Maria basilikan entzuteko aukera nuen. Euskadiko Orkestra Sinfonikoak jo zuen, eta Orfeón Donostiarrak, Corazón de María korallak eta eskolaniak eta San Inazio Eskolaniak hartu zuten parte kantatuz. Zuzendaria Pierre Kaelin, eta... errezitatzaile Helder Camara bera.

Indarra, berotasuna, bihotza ipini zuten musikaren eta kantuen artean berak irakurri zituen testuetan. «Argalak konturatzen dira indartsu bihurtzen direla, eta menderakaitz, elkar hartzen duten neurrian, bat egiten duten neurrian...». Bereziak hiru biolentzi motak salatu zituen: «*Attention, mes frères les hommes!*» —frantsesez eman zuten sinfonia—... Jendeen miseria —behar gorria— da *lehenbiziko biolentzia*, gizon-emakumeak gizatasauren azpitik bizitzera behartzen dituen, eta zapalketa eta menperaketa... Miseriaren ondorio dira lapurretak, hilketak, mendekua, izua: *bigarren biolentzia*... Horien ondorioz dator boteredunen erreprenta, gehiegitan animalien parekoa, basatia: *hirugarren biolentzia*... «Horra gu bete-betean biolentziaren espiralean...» Eta orkestraren oihartzuna: «Biolentziaren

espirala!». Eta korauek erantzuna: «Biolentziaren espirala. Horren aurka borrokatzeko, miseria behar da borrokatu. Miseria da zinezko gerra». Hamaikakto aldiz entzun dut orduan erositako kasetea; kotxean eraman ohi dut, eta sarritan goizeko otoitz egiteko balio izan dit Helder Camararen poema sinfonikoak.

Bibliako profeta ez da etorkizun historikoa asmatzen duena; pobreen eta zapalduentzako justizia aldarrikatzen duena da profeta, horiei esperantzarako arrazoiak eskainiz, etsipenerako arrazoiak gaineratuz. Jainkoaren justizia eta errukia, askapen historikoa eta geroko salbamenena. *Pobreen aldeko profeta* Helder Camarak ez du liburu handirik idatzi, ez du teologikoa tratatu sistematikorik argitaratu. Baina, apezpiku beren jende pobreen artean, askatasuna bilatzera eta beren fedezko esperentziaren askapen-teologia egitera eragin die aurrenik bere oinarriko kristau elkartei eta horiekin batera teologoi. *Biolentziaren espirala* eta *Basamortua emankorra* dira horren bi liburu xume, poetiko eta profetiko. Haren ideia nagusietako bana adierazten dute tituluetan.

Eta *Bi munduen sinfonia* poema idatzi zuen, hitzaren eta musikaren indarrez zapaltzaileen ahultasuna eta zapalduen *indarra* aldarrikatzeko. Giza historiaren irakurketa teologikoa eta kanta profetikoa duzu poema: «gizona ene sendearen» minez mindua eta bere bihotz samurtze samurtua.

Ausardi handia, Jainkoarena, mundua sortzean dio poeta teologoak. Jainko sortzaileak berakin batera sortzaile izango den gizakia egin zuen. «Gizona, ene sende, zuri begira daude zeru-lurrak». Gizon-emakumearen handitasuna eta gaitasuna, ordea, kontradikzio larri bihurtu dira, horrek Jainkoaren «doharik onenak, adimena eta askatasuna galtzeraino», eta kontradikzioz betetako historia ekarri digute: «Gizona, ene sende, Kristo jaio zenetik 2000garren urteko balantzea bel-durgarria da». «Gerra pizteko nahikoa ir-dargabea» eta «mundo miseria eta m e n p e k o t a s u n a kentzeko nahikoa indartsua» den gizaga-

“  
Zapalduentzako  
justizia aldarrikatzen  
duena da profeta,  
horiei esperantzarako  
arrazoiak eskainiz,  
etsipenerako  
arrazoiak gaineratuz

joa hautsita dago barrutik; eta armen lasterketan abiatu, eta «segurantzia nazionalaren jainkosa» asmatu dute, herri-tarren behar gorriak ahantzi, eta itzulie-zineko zorretan zorpeteraino, «jainkosa babesteko». Baina nork irabaziko du, nork; argalak ala indartsuak?». Galderalelo larri horren oihartzuna entzun daiteke poemaren azkenerarte.

«Egituren zamapean erori zara, askatasuna... Baina zuzengabekeriak, tiraniek, gerrek, zapaketek, torturek... miseriak, gorrotoak, bahiketek, hilketek... ezarritako «gau ilunean» Jainkoaren Izpirituak bere arnasa zabaldua du, eta «itxaropen-zantzuak», oso xumeak, ikus, entzun daitezke, adi egonez gero; mundu hobearen bila altxalzen ari diren borondate oneko jende-

ak, batuz doazen pobreen oinarriko elkar-teak: «Berrekin dezagun mundua Gauetik atera gaitezen». Gauerdia ilunaren ilunean haur jaioberriaren oihua entzuten da, nagusiek ezarritako mundu horren aurka. «Bihar geu izango gara adinekoak. 2000garren urtean gurea izango da garaia». Eta amaitzeko, gau ilunaren ondoko egunsentia «bi munduak bat egink» ikusiko dituen esperantza, bi munduak «kantu bat, sinfonia bat» eginda. Esperantza irekia, «Izpirituaren arnasa arnasean ari baita gauerdian».

Helder Camara poeta izan da, poeta eta profeta. Ez duzu teologo profesionala izan, baina Askapen-Teologiaren iturrian eta oinarrian jardun da, oinarriko kristau-komunitateak suspertu eta laguntzen, gotzain sutsu eta arduratsu. Alfredo Tamayok bere *Para comprender la Teología de la liberación* liburuan bost apezpiku —ez teologo— aurkezten ditu: «*cinco obispos latinoamericanos comprometidos con la liberación cuya pastoral responde a los presupuestos teórico-prácticos de la TL*». Horien artean ez dago Helder Camara! Hautaketa zaila izanik, berak egindakoa ez dela zorrotza aitortu eta guzti, ez da erraz ulertzekoa nolatan ahantzi duen gure Helder Camara. Latinamerikako Askapen-Teologiaren aitzindari izan baitzen eta horren bermatzaile eta bidegile bere *oinarriko komunitateen* pastoraltzan.

*Pobreen aita* deitu dute, horien aldeko aukera praktikoa egina zuelako; baina aberats eta zapaltzaileak salatzen zuten ke-mena eta maitatzeko bihotza ez zaizkio inola agortu. Gandhiren *ez-bortxa aktiboaren* bideari tinko eutsi izan dio Hego Amerikan. *Bakea eta Justizia Ekintza* deritzo berak sortu eta eragindako gizarte-mugimenduetako bati.

gogoratuz

• JOXAN ELOSEGI •

## • Duela 945 urte

### Atapuerca

1054ko irailaren batean menderatu zuen Gaztelako errege Fernandok bere anaia Gartztea, Nafarroako erregea. Atapuercako inguruetan, ehun milaka urte lehenago, giza jendeak suaren berotasuna ez baina larruaren patua jadanik ezagutzen zuela frogatu berri den lurretan hain zuten ere. Santxo Gartzteiz *Nagusia* deitu errege nafarraren semeak ziren Gartztea eta Fernando, eta aitarien oinordekotzan jaso zituen lehenak Ahūnemenditik Bureba arteko lurralde guztiak. Santxo Nagusiak

errege nafar batek inoiz ukan duen lurralde zabalena bildu zuen bere koroara, haren mendean egon baitziren egungo Euskal Herria, Tuteria izan ezik, Leon, Gaztela, Errioxa, Calahorra izan ezik, Aragoa, Sobrarbe, Ribagorza, Pallars eta Gaskoinia. Inperio bat, alegia. Espainiako erregeztat eta, mairuen beldurra bihurtua zelarik, kristautasunaren lehen defendatzaileztat zuen bere burua. Baina inperio hura bere ondokoan artean banatzea deliberatu zuen eta haren testamentutik sortu ziren Gaztelako eta Arago-

ako erreinurik, baita Sobrarbe eta Ribagorzakoa ere. Gartzteak jaso zuen seniparte handiena, Nafarroako errege izango zen aldetik.

Atapuerca alde horretan zegoen, hain xuxen, Nafarroa eta Gaztelako erresumen arteko muga. Jakitunen arabera, adiera bereko bi hitz bildu ziren izen hartara, euskarazkoa bata, *ata* (ate), eta gaztelanizkoa bestea, *puerta*. Herriak hedatuko zuen ondorengo *puerca* hura, eta jatorrizko izenari beste adiera bat erantsi. Mugak beti muga, beti zaindu beharrak, Erri-

xako Naieran egokitu zituen Gartzteak gortea eta armada, ez baitzen nonbait anaiarekin fio. Ez zebilen oker. 1054. urte hartarako bazuen lurrairek ikara zainetan sentituzeko arrazoik franko, urte batzuk lehenago Fernandok amarruz atxilotua baitzuen anaia bere gaztelura bisitan etorria zen batean. Zaindaria erositako ihes egin ahal izan zuen errege nafarrak handik.

Gudian batu ziren azkenik bi anaiei armadak Atapuercako zelaietan. Erraz nagusitu ziren gaztelauak, asturiar eta leondarren laguntza, eta lantzakada batez hil zuten bertan errege nafarra. Atapuerca izan zen Nafarroako erreinuaren geroa iragarri zuen lehen zantza, haren konkistarako ireki zen lehen atea, bai eta sua irazeki ez ezik irau- gi ere egiten dela gogorarazten digun izena.